



OPEN DAYS 2013

ESKUALDEEN ETA HIRIEN EUROPAKO ASTEA



**11th European Week of
Regions and Cities**
Brussels 7 - 10 October 2013

Urriaren 7tik 10era Eskualdeen eta Hirien Europako Astea izango da Bruselan, Europar Batasuneko eskualde mailako politikaren ekitaldi nagusia.

“**Europako eskualdeak eta hiriak 2020. urterantz**” esloganaren mendean, Eskualdeen eta Hirien Europako 11. asteak aukera ezin hobea eskainiko du batasuneko erakundeek, kudeaketaren arloko agintariek eta onuradunek eztabaidatzeko, ezagutzak trukatzeko eta sareak finkatzeko, programaziorako 2014-2020 aldi berriari begira.

Eskualdeen eta Hirien Europako Asteak iraungo dituen lau egunetan, 54 herrialde baino gehiagotako 5.500 partaide inguruk (toki, eskualde eta nazio mailako erabakitzaile politikoak eta adituak) gai hauek jorratuko ditu::

- **2014-2020 aldaketaren kudeaketa:** 2014-2020 programaketa-aldi berriko lehentasunezko gaiak egikaritzeko ikuspegi berritzaileei buruzko aurkezpena eta eztabaidak. Profesionalek, akademikoek, Batasuneko erakundeek eta eskualdeko adituek 2014-2020 programen aplikazioko elementu berrietan partekatu ahal izango dute beren esperientzia, hala nola integratutako lurraldeko inbertsioetan, Baterako Ekintza Planetan, gobernantza berrian, jarduera-marko berriaren ezaugarrietan, finantza-tresnetan, sinplifikatutako kostuen aukeretan...
- **Sinergiak eta lankidetzak:** politika nazional, eskualde mailako politika eta Batasuneko politiken arteko sinergiak nola lagundu, koordinatu eta ziurtatu; eskuragarri dauden finantziario-iturriak, horien aukerei eta dauden alternatibei jarraiki. Nazio, eskualde eta udalerrri mailako administrazioen arteko lankidetzarako baldintza espezifikoak ezaugarriak, aukerak eta abantailak azalduko dituzte, hala nola Lurralde mailako Lankidetzako Europako Elkarteak edo makro-eskualdeetako estrategiak, besteak beste.
- **Erronkak eta irtenbideak:** Europako eskualdeak eta hiriak beren kabuz gainditzeko erronka zailak aurre egin behar diren aurkitzen dira; dena den, eskualde eta hirietako testuinguruetara egokituta eta partekatuta, pertsonen eta enpresen bizi-kalitatea hobetu dezaketen irtenbideak daude. Eskualde eta hirietako erronkei aurre egiteko irtenbide praktikoak aurkeztuko dituzte: ETE-en krediturako irisgarritasuna, gazteen langabezia, erronka demografikoak, hondakinen eta uraren kudeaketa, arrisku naturalen kudeaketa, zirkulazioa eta mugigarritasuna, kutsadura...



A hundred of workshops
and debates...



OPEN DAYS 2013-ei buruzko argibide gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/conferences/od2013/index.cfm